



ARDOAREN  
IBILBIDEA  
ARABAR • ERRIOXA

# GARAICO PRODUKTUAK



**BIOSPHERE**  
certified destination



araba  
à lava



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Alava



EUSKADI  
BASQUE COUNTRY



[www.rutadelvinoderiojaalavesa.com](http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com)









## UDABERRIA\_3

- 4\_ Lorearen eta baratzaren Feria
- 5\_ Ardoaren Feria historikoa
- 6\_ Ardoaren bandera
- 7\_ Gaita-Jotzailearen eguna
- 8\_ Upategiak kalean bertan

## UDA\_9

- 10\_ Turismoa familian
- 11\_ Lapuebla Rock Fest
- 12\_ Musika mahastien artean
- 13\_ Mahaiaren inguruan
- 14\_ Erdi Aroko Pintxo-lehiaketa

## UDAZKENA\_15

- 16\_ Mahats-biltzearen festa
- 17\_ Bisitaldi antzestuak
- 18\_ Arabako Errioxako Media
- 19\_ Arabako Errioxa Wine Run
- 20\_ GR-120. Inaziotar bidea

## NEGUA\_21

- 22\_ GR-38. Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea
- 23\_ Eguberriak
- 24\_ Uztaberri Eguna
- 25\_ Arabako Errioxako Olioaren festa

# ARABAKO ERRIOXA

Hona hemen zure hurrengo ihesaldian Arabako Errioxa gozatzeko eta toki paregabean erlaxatu eta bikain pasatzeko hainbat aukera. Zuk nahi duzunarekin, izan lagunak, familia edo bikotekidea, Arabako Errioxa badu bila zabiltzan hori eta askoz gehiago ere bai.

Harritu egingo zaituzte gure herriek, upategiek, gastronomiak, baina batez ere, bertako jendeak.

Ardoagatik eta ardoarentzat bizi den lurralde honetan, bost zentzumenak esperimentatzeko plan paregabe eta ezinbestekoak.

Gogoko duzun horretarako guztirako hamaika plan ditugu eskaintzeko: bereziak, dibertigarriak eta ahaztezinak.



INFO + > [www.rutadelvinoderiojaalavesa.com](http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com)







# UDABERRIKO PRODUKTUA

Lorearen eta baratzaren Feria\_  
Ardoaren Feria historikoa\_  
Ardoaren bandera\_  
Gaita-Jotzailearen eguna\_  
Upategiak kalean bertan\_





ZIEKO | APIRILA

# LOREAREN ETA BARATZAREN FERIA

Azoka antolatzen da eta bisitariek hainbat produktu mota eskura ditzakete, **loreak eta frutak edo baratzeako landareak edo baratzezaintzarako tresneria**, hala makinariarentzako tresnak nola dekorazio gaiak, eta euskal gastronomiarekin zerikusia duten elikagaiak

Soinuak eta dantzak ere ez dute huts egiten. Hain zuzen, festak gora egiten du Donostiako Inauteri Tradizionaleko Lorezainen Konpartsak parte hartzen duenean, Ziekoko Gaita-jotzaileekin batean.

# ARDOAREN FERIA HISTORIKOA

Artisautza eta nekazaritzako elikagaien azoka, dastatze iruzkinduak, uztartzeak eta bisitaldi gidatuak dira hitzordu honen erakargarritasun zenbait. **Ardoaren antzinako historia ezagutarazteko** sortutako ekitaldi honek Navaridas herria, bertako produktuak eta bertako upategiak sustatzen ditu, aldi berean. Urtero herrialde ekoizle bati eskaintzen dio feria, eta haren historia eta bertako ardoak elkartzen ditu.



# ARDOAREN BANDERA


**Arraunketa eta traineruak, ardoaren kultura, gastronomia eta festarekin uztartzen ditu** ekimen honek.

Bi egunetan banatuta, zenbait Arraun Talde elkartzen ditu batel erakustaldi batean, eta haiekin batean, etorle askok eta askok partekatzen dute musika, gastronomia, dantza, eta batez ere, elkarbizitza eta dibertsioa. Ebro ibaia eta ardoa protagonistatzat hartuta, upategiak ere bertan izaten dira euren ardorik onenak dastatzeko ematen.

# GAITA-JOTZAILEA

Maiatzean ospatzen da Laguardiako jairik ezagunenetako hau, herria **gaita-jotzaile eta dultzainero sorleku izanik**, eta duen Erdi Aroko kutsua izanda, marko ezin hobea baitira bertako kaleak musika tresna honen oihartzunak entzuteko.

Alde guztietako gaita-jotzaileak etortzen dira hitzordu honetara eta musikazale eta profesionalek atsegin hartzen dute egun horretan, askotariko konpartsa eta taldeak ikus baitaitezke.







## UPATEGIAK KALEAN BERTAN

Herri mendebaldekoenetan **kalera ateratzen dituzte upategiak haien ardoak enoturistei ezagutarazteko.**

Upategiak hainbat standetan banatzen dira herriko kale nagusienetan zehar, eta euren ardoak dastatzeko aukera ematen diete agertzen diren guztiei. Dastatu ahal izateko, oso prezio onean saltzen den beirazko kopa bat erosi behar izaten da.

# UDAKO

# PRODUKTUA

Turismoa familian\_

Lapuebla Rock Fest\_

Musika mahastien artean\_

Mahaiaren inguruan\_

Erdi Aroko Pintxo-lehiaketa\_





ARABAKO ERRIOXA | UDA GUZTIAN

## TURISMOA FAMILIAN

Ezagut ezazu Arabako Errioxa **familian etxean bezala sentitzeko**. Familiako kide guztientzat kultura, natura, eta aisialdiko jarduera aukera anitz dituen helmuga da.

Zuk eta zeure familiak lehen pertsonan bizi beharrekoa.



# LAPUEBLA ROCK FEST

Lapuebla de Labarcak **talde multzo bikaina eskaintzen dio publikoari rock jaialdi honetan, lehen mailako taldeak kartel- buru direla**. Jaialdi eremuan bi egunez ekitaldi ezin heterogeneoagoak biltzen dira musika estiloei dagokienez: rocka, punka, reggaea edo metala hedatzen dira, euren izaerarik gorenean.

Jaialdian izatea erosoago egiteko, antolakuntzak kanpin gune bat eskaintzen du Povedan, asteburu bikaina igarotzeko beharrezko instalazioak (dutzak, komunak, janari-edariak..) dituen Ebro ibaiaren ondoko paraje naturalean, alegia.





ARABAKO ERRIOXA | UZTAILA


# MUSIKA MAHASTIEN ARTEAN

Musika Mahastien artean Jaialdiak garrantzi handia du Arabako udako zita kultural nagusien artean.

Laguardia-Arabako Errioxako Koadrilak sustatuta, jaialdiak honako hauek ditu barne: **jazz, blues edota rock kontzertuak egunero**, baita elizak, baselizak, aisaldirako guneak edota **Erdi Aroko hiriak bezalako eskualdeko toki adierazgarrietan egiten diren dantza jarduera parte-hartzaileak** ere. Asteburuetan, udako kontzertuak laguneren artean, mahastiz inguratutako paisaietan gozatzeko.

# MAHAIAREN INGURUAN

Arabako Errioxan uztailaren bukaeran ospatzen den ekitaldian erakusketa guneak daude. Euskadiko eskualde ezberdinetako turismo-informazioguneak, dastatzeak eta produktu gastronomikoen salmentarako postuak, euskal produktuen eta Arabako Errioxako zenbait ardo orijinal eta harrigarriren dastatzeak ere bai. Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak antolaturik, **izaera iraunkor nabaria du** zita honek eta azken ekitaldi batek ematen dio amaiera. 'Sunset & Dine' izenekoak, parerik gabeko **ilunabarra gozatu bitartean mahastien artean egiten den uztartze-afariak**, alegia.



# ERDI AROKO PINTXO-LEHIAKETA

Erdi Aroko **pintxo-lehiaketa** honetan baldintza nagusia zera da: proposamenek **Amerikako aurkikuntza baino lehenagoko** Espainiako ohiko dietaren parte ziren osagai eta **produktuz eginak** behar dute izan. Beraz, tomateak, artoa, piperra edota patata, esaterako, ezin izango dira erabili.

Ekitaldi hau hasi aurreko ostegunean, epaimahaikideek erabakiko dute nor izango den garailea profesional mailan. Hurrengo astelehenean Pintxo Profesional Hoberenari eta Herritarren Pintxo Hoberenari sariak banatuko zaizkie.

# UDAZKENEKO

# PRODUKTUA

Mahats-biltzearen festa\_

Bisitaldi antzeztuak\_

Arabako Errioxako Media\_

Arabako Errioxa Wine Run\_

GR-120. Inaziotar bidea\_







ARABAKO ERRIOXA | IRAILA

# MAHATS-BILTZEAREN FESTA

Festa hau sortu zen Koadrilako zenbait auzokidek interes berezia agertu zutelako; ardoa, **haien produktu sozial eta ekonomiko adierazgarriena ardatz zuten jardunaldiak** goretsi nahi zituztelako. Arabar izaera sendo eta ederra dute.

Gainera, ibiltaria denez, edizio bakoitzean herri batek hartzen du hura antolatzen ardura. Eta horrek lortzen du **eskualde osoak parte hartzea eta urtez urte, bere edukia suspertzea.**

# BISITALDI ANTZEZTUAK

Egin ezazu **bidaia iraganera** eta ikus itzazu Arabako Errioxako Erdi Aroko hiri ezberdinetan eta hauetako eraikinik adierazgarrienetan pertsonaiei beren bizitzetan jazotakoak, zuzen-zuzenean eta bertatik bertara.

**Umorez beteriko istorioak**, zuk nahi dituzunen ondoan gozatzeko: lagunekin, bikotean, familiakoekin. Sekretuak, bitxikeriak, anekdota dibertigarriak,.....hauek guztiak bizitzeak **ikuspegi berria** emango dizu gure herriak bisitatzeko unean eta honek aukera emango dizu **Arabako Errioxak duen xarma ezkutuenaz ezagutzeko.**





# ARABAKO ERRIOXAKO MEDIA

**Diziplina anitzeko kirol ekitaldi** honek modalitate ezberdinak batzen ditu: maratoi-erdia, herri-lasterketa, txikienezako lasterketa, patinak eta nordic walking-a.


Udazken hasieraren eta **askorentzat denboraldi hasieraren erreferente** gisa finkaturik dagoen proba honetan, 500 atleta inguruk hartzen dute parte eta bai irteera eta bai helmuga Samaniegon izaten dute. Ibilbideak urtero aldatzen dira eta horrela, paisaia eta inguruko herriak ezagutzeko aukera ematen du.



# ARABAKO ERRIOXA WINE RUN

**Ardoaren inguruko kirol erronka.** Wine Run Lanzaroten sortutako ekimena da uharteko Kabildoari eta Lanzaroteko Ironmanen fundatzaile den Kenneth Gasqueri esker. 20 kilometroko proba bat eta 12ko beste bat. Ekitaldi honetan, mahasti eta upategien arteko herri-ibilaldia eginez ere parte har daiteke.

Ekimen honek, **Arabako Errioxa sustatu nahi du eta bere tradizioa eta** ehunka urte dituzten etxalde txikiek osaturiko familia-upategien **kultura aldarrikatu**, hauek guztiek muinotxoak eta ezkutuko lekuak osatzen baitituzte Kantabriako Mendiaren oinean. Paraje paregabea, tradizioa eta edertasuna arnasten dituen, eta kirolarekin modu ezin egokiagoan uztartzen dena.



# GR-120 INAZIOTAR BIDEA

Inaziotar bideak **Loiolako Inaziok** 1552an, santuaren jaiotzetik Manresako Covaraino **bere peleginazioan egin zuen bidea jarraitzen du**, eta Arabako ekialdeko lurraldeak zeharkatzen ditu.

Bide horrek, **erlijio turismoa bultzatzeaz gain, naturaz eta paisaiaz gozatzea, beste ibiltarien konpainia izatea eta toki bereziak ezagutzea sustatzen du, azken horien artean, elizak, trikuharriak, aintzirak...** Ibilbidean barna lau hornidura gune oparo aurkituko ditu ibiltariak, eta bertan, nola ez, Arabako Errioxako ardoa.

# NEGUKO PRODUKTUA

GR-38. Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea\_  
Eguberriak\_  
Uztaberri Eguna\_  
Arabako Errioxako Olioaren festa\_





LAGUARDIA-OION | ABENDUKO ZUBIAREN ONDOKO 1. IGANDEA

## GR-38: ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA

**GR-38ak Euskadi hegoaldetik iparraldera zeharkatzeko aukera ematen du.** Oiondik Bermeeko kairaino, paisaia antz eta liluragarrietan barna. Ibilbide luze honetan zehar, geure arbasoen historia ezagutzeko parada izanen dugu.


Bideko galtzadak oraindik gordetzen ditu garai batean mandazainek garraiatzen zituzten merkantzien usainak. Bermeotik, Ondarroatik eta Lekeitiotik **arrain freskoa edo gazitua eramaten zuten gurdizainek** hegoaldera, eta bueltan **garia, gatza, ozpina eta ardoa** ekarri.

# EGUBERRIAK

Eguberrietan etxean gelditzea aukera ona da, baina **gero eta indar handiagoa hartzen ari da bidaiak egitea** eta garai hori bestelako tokietan pasatzea.

Arabako Errioxak hainbat jarduera tradizional egiten ditu data horien aurretik eta ondotik: jaiotza bizidunak, eguberrietako kontzertuak, erlijio dantza tradizionalak, Olentzero eta Errege Magoen etorrera... eta horiei **beste batzuk gehitzen zaizkie**, hala nola, dastatze bereziak, kotilloiak, menu bereziak, dendetan eskaintza bereziak, jaiotza girotuak upategietan, eta askoz gehiago.

Zatoz Arabako Errioxara eta gozatu haurren poz berarekin, Eguberri giroaz gozatzeko bestelako modu bat.



## UZTABERRI EGUNA

Lapuebla de Labarcako **ohituren, produktuen eta ardoaren zabalkundeari eskainitako eguna**. Herriko upategiek hartzen dute parte bertan, eta bisitariei ateak irekitzen dizkiete uztza berriko ardoak dasta ditzaten.


Hainbat txoko izaten dira artisau produktuak erakusteko; xaboia, **muztio egosia-muztioaren egosketatik ateratzen den produktu gozoa**-, olibak, olioak, balsamo-ozpina eta erroskillak. Feriako protagonista nagusia da **“bolo” delakoaren dastatzea**, herri honetako plater tipikoa, arroza osagai nagusi duena, bakailaoa, patatak eta piper txorizeroarekin.



# ARABAKO ERRIOXAKO OLIOAREN FESTA

Asteburuan zehar **olioaren inguruko hainbat ekitaldi** antolatzen dira. Horien artean aipagarriena uzta berriaren aurkezpena da. **Arroniz oliba-barietateko oliba-olio birjina estra** da, Arabako Errioxako barietate tipikokoa, izen handiko jatetxe eta sutegetan oso preziatua.

Olio dolareetara bisita gidatuek, herri-dastatzeak eta produktuaren salmentak osatzen dute benetako altxor honi eskainitako asteburuko jarduna, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari baita, bai produkzioan baita promozioan ere.





[www.rutadelvinoderiojaalavesa.com](http://www.rutadelvinoderiojaalavesa.com)

